

## Irakasleen prestakuntza ardatz hartuta, maiatzaren 15ean egingo da, Eskoriatzako campusean, "Hezkuntza berrikuntza" jardunaldiaren bigarren edizioa

2014/05/07

**Maiatzaren 15ean** egingo da Eskoriatzako campusean, "Hezkuntza berrikuntza" jardunaldiaren bigarren edizioa. Eskola munduko eragileak biltzea, hezkuntza arloan esperientziak trukatea eta berrikuntza sustatzea xede dituen ekitaldia, hurrengo lelopean egingo da: "**Irakasleen prestakuntza: eraldaketa bilatuz. Beharrak, erronkak eta esperientziak**". Ekitaldiak sarrera irekia izango du, eta maiatzaren 12ra arte egingo da aukera izena emateko.

Jardunaldia egingo da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan, eta, goizeko 08:45etan hasita, eguerdiko 13:00ak arte luzatuko da. Jardunaldian parte hartu nahi dutenak eman behar du izena, aldeaz aurretik, hurrengo helbidean: [harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu) edo **943 71 41 57** telefonoan.

### 2014KO EKITALDIKO EGITARUA

**08:45-9:00 Dokumentazio banaketa.**

**09:00-09:15 Ongi etorria. Nekane Arratibel** (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea dekanoa).

**09:15- 10:30 Mahaingurua. IRASKALEEN FORMAZIOA: ILDOAK, ERRONKAK ETA PROPOSAMENAK**

Gidaria: **Joxe Mari Auzmendi** (*Hik Hasi* aldizkaria).

Partaideak:

- **Arantza Aurrekoetxea** (Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza).
- **Iñaki Biain** (Irungo Berritzegunea).
- **Mariam Bilbatua** (Huhezi-Mondragon Unibertsitatea).
- **Abel Ariznabarreta** (Ikastolen Elkarte).
- **Arantxa Arostegi** (Kristau Eskola).
- **Xabier Mendizabal** (Eskola Publikoa).

**10:30-11:00** Atsedena

**11:00-12:30 Esperientziak. ERALDAKETARAKO BIDEAK URRATZEN**

- **HUHEZI**: Irakasle-eraldatzaile rola landuz Graduiko ikasketetan.
- **BERRIMET**: Mikel Errazkin Santo Tomas Lizeoaren memoria historiko lantzeko proiektua.
- **EKOMU**: Joseba Antxustegietxarte. Hirukide Eskolan irakasleen prestakuntzarako proposamena: ikasten duen erakunderantz.

**12:30-13:00 Itxiera eta agurra. Arantza Ozaeta** (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea Graduondo eta Etengabeko Prestakuntza arduraduna).

> EGUNERAKETA (2014-05-16): jardunaldiaren [argazki galeria](#).

### HEZKUNTZA BERRIKUNTZA 2. jardunaldiak

Irakasleen prestakuntza: eraldaketa bilatuz.  
Beharrak, erronkak eta esperientziak



"Hezkuntza berrikuntza" jardunaldiaren bigarren edizioa, maiatzaren 15ean.